

URRETXU / Irakurle taldeko kideak lanean gogotsu

Zumarraga- Urretxuko irakurle taldeak hilabeteko bilkura egin zuen asteazkenean Urretxuko liburutegian. Hilabete honetako solasaldirako irakurri beharreko liburua, Eider Rodríguez idazlearen 'Katu jendea' liburua izan da. Liburuaren gainean solasean aritu ziren irakurle taldeko kideak eta saio horretara propio joandako idazlea bera ere bai. Eider Rodríguez irakurzaleen artean egon baitzen. Liburuaren gaineko hainbat azalpen eman zituen, taldeko kideek egindako galderei erantzun eta hainbat liburu sinatu. Rodríguez 1977an jaio zen Erreterian. Aurretik beste bi kaleratu ditu: 'Eta handik gutxira gaur' (2004) eta 'Haragia' (2007). Irakurle taldea, urtarrilaren 12an bilduko da berriz.

Hurrengo hilabeterako irakurri beharreko liburua Iban Zalduaren 'Ipuinak, antologia bat' da.